OIARTZUNGO UDALA

**ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAKO ZERBITZU BEREZIAK AZPIESKALAKO UDALTZAINGO MOTARI DAGOKION PLAZA (UDALTZAINGOKO AGENTE LANPOSTUARI DAGOKIONA) BETETZEKO HAUTAKETA PROZESUAREN LEHEN PROBAREN A ZATIA**

Lehen probaren A zatia galdetegi bat da eta erantzuteko hainbat aukera izango ditu. Galderak oinarri espezifikoetako I. eranskineko gaitegi orokorraren ingurukoak izango dira. **25 galdera dituen galdetegi bat da, azken 5 galderak erreserbakoak direlarik. Galdera-sorta hau egiteko 45 minutu dituzu. Galdera bakoitzak puntu bat balio du.**

**Erantzun oker bakoitzeko erantzun zuzen baten balioaren heren bat kenduko da. A zatiak gehienezko balioa 20 puntukoa da. B zatiak gehienezko balioa 40 puntukoa da, eta lehen probatik kanporatuak izango dira proba osoan (A eta B zatiak batuta) 30 puntu edo gehiago eskuratzen ez dituztenak.**

**PARTE A DE LA PRIMERA PRUEBA DEL PROCESO DE SELECCIÓN PARA EL ACCESO A UNA PLAZA CORRESPONDIENTE A LA CLASE DE POLICIA LOCAL DE LA SUBESCALA DE SERVICIOS ESPECIALES DE LA ESCALA DE ADMINISTRACIÓN ESPECIAL, CORRESPONDIENTE AL PUESTO DE AGENTE DE LA POLICIA LOCAL**

La parte A de la primera prueba consiste en un cuestionario de preguntas con varias alternativas de respuesta que versarán sobre el temario general contenido en el Anexo I de las bases específicas. **Se trata de un cuestionario con 25 preguntas, siendo las 5 últimas preguntas de reserva. Para la realización del presente cuestinario dispones de 45 minutos. Cada pregunta vale un punto.**

**Por cada respuesta errónea se descontará la tercera parte del valor de una respuesta correcta. La parte A tiene un valor máximo de 20 puntos. La parte B tiene un valor máximo de 40 puntos, siendo eliminados quienes en la primera prueba no obtengan 30 puntos o más en el cojunto de la prueba (sumando las partes A y B).**

## GALDETEGIA

**1.- Honako hauek dira udalerriaren elementuak:**

a) Lurraldea, biztanleria eta antolamendua.
b) Lurraldea eta gobernu ona.
c) Lurraldea eta erroldatutako adin nagusiko biztanleak.
d) Aurreko erantzun bat ere ez da zuzena.

**2.- Zein da udalerria?**

a) Udalak hartzen duen azalera.
b) Udal-mugartea udalak bere eskumenak burutzeko hartzen duen lurraldea da.
c) Udalarenak diren lurrak.
d) Aurreko erantzun bat ere ez da zuzena.

## CUESTIONARIO

**1.- Son elementos del municipio:**

a) Territorio, población y organización.
b) Territorio y buen gobierno.
c) Territorio y los y las vecinas empadronadas mayores de edad.
d) Ninguna respuesta es correcta.

**2.- El término municipal es:**

a) La superficie que ocupa el ayuntamiento.
b) El territorio en el que el ayuntamiento ejerce sus competencias.
c) Los terrenos de propiedad municipal.
d) Ninguna respuesta es correcta.

**3.- Baieztapen hauetako zein da zuzena?**

a) Ez dago erroldan izena emateko betebeharrik, udalerrian bizi ohi bada ere.
b) Udalerrian botoa emateko eskubidea baliatu nahi dutenek soilik eman behar dute izena erroldan.
c) Pertsona orok du ohiko bizilekua duen udalerriko erroldan izena emateko betebeharra.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**3.- Cuál de las siguientes afirmaciones es cierta:**

a) No hay obligación de inscribirse en ningún padrón, aunque se viva habitualmente en el municipio.
b) Sólo tienen que inscribirse en el padrón quienes quieran ejercer el derecho al voto en el municipio.
c) Toda persona está obligada a inscribirse en el Padrón del municipio en el que resida habitualmente.
d) Todas las respuestas son correctas.

**4.- Noiz hartzen da herrikide-izaera?**

a) Udalerrian higiezin baten jabetza edukitzeagatik.
b) Udalerrian gaua pasatzearen ondorioz.
c) Udal-tributuen erroldan alta ematen denetik aurrera.
d) Erroldan izena ematen den une berean.

**4.- La condición de vecino o vecina se adquiere:**

a) A consecuencia de poseer la propiedad de un inmueble en el municipio.
b) A consecuencia de pernoctar en el municipio.
c) A partir de darse de alta en el padrón de tributos municipal.
d) En el mismo momento de su inscripción en el Padrón.

**5.- Udal-antolakuntzak arau hauei erantzuten die:**

a) Alkatea bakarrik da beharrezko organoa biztanle gutxiko udaletan.
b) Osoko bilkura beharrezkoa da bakarrik 5.000 biztanletik gorakoetan.
c) Ez dago beharrezko organorik.
d) Udal guztietan daude alkatea, alkateordeak eta osoko bilkura.

**5.- La organización municipal responde a las siguientes reglas:**

a) Sólo el alcalde o la alcaldesa es órgano necesario en los ayuntamientos de escasa población.
b) El Pleno es necesario sólo en los de más de 5.000 habitantes.
c) No hay ningún órgano necesario.
d) El Alcalde o la Alcaldesa, los y las Tenientes de Alcalde o Alcaldesa y el Pleno existen en todos los ayuntamientos.

**6.- Alkatea udalburua da eta ondoko eskumenak ditu:**

a) Langile guztien burutza gorena izatea.
b) Udaltzaingoaren buru izatea.
c) Hondamendirik edo ezbehar publikorik edo arrisku larririk gertatuz gero, neurri egokiak hartzea, zuzenean eta bere erantzukizunpean, eta Osoko Bilkurari berehala jakinaraztea.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**6.- El Alcalde o la Alcaldesa ostenta la Presidencia de la Corporación y las siguientes atribuciones:**

a) Desempeñar la jefatura superior de todo el personal.
b) Ejercer la jefatura de la Policía Municipal.
c) Adoptar personalmente, y bajo su responsabilidad, en caso de catástrofe o de infortunios públicos o grave riesgo de los mismos, las medidas necesarias y adecuadas dando cuenta inmediata al Pleno.
d) Todas las respuestas son correctas.

**7.- Udalbatzari dagozkio, nolanahi ere, ondoko egiteko hauek:**

a) Langileen plantilla eta lanpostuen zerrenda onartzea, funtzionarioen ordainsari osagarri finko eta aldizkakoen zenbatekoa finkatzea eta behin-behineko langileen kopurua eta araubidea zehaztea.
b) Aparteko oporrak onartzea.
c) Langileen burutza gorena.
d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**7.- Corresponden en todo caso al Pleno municipal las siguientes atribuciones:**

a) La aprobación de la plantilla de personal y de la relación de puestos de trabajo, la fijación de la cuantía de las retribuciones complementarias fijas y periódicas del funcionariado y el número y régimen del personal eventual.
b) La aprobación de las vacaciones extraordinarias.
c) La jefatura superior del personal.
d) Ninguna de las respuestas es correcta.

**8.- Alkateak honako hauek eskuordetu ditzake:**

a) Tokiko Gobernu Batzarreko kideei zenbait eskumen ematea.
b) Alkateak ezin du inoiz eskuordetu.
c) Gaixotasun larria dagoenean bakarrik eskuordetu dezake.
d) Hauteskunde-zerrendako bigarren zinegotziari baino ezin dio eskuordetu.

**8.- El Alcalde o la alcaldesa puede delegar:**

a) El ejercicio de determinadas atribuciones en los miembros de la Junta de Gobierno Local.
b) El alcalde o la alcaldesa no puede delegar nunca.
c) Solo puede delegar en caso de enfermedad grave.
d) Sólo puede delegar en el o la segunda concejala de la lista de elecciones.

**9.- Udalerriaren eskumenak dira:**

a) Edateko uraren etxeko hornidura eta hondakin-uren ebakuazioa eta tratamendua, hiri-lurzoruan soilik.
b) Bide-azpiegitura eta bere titulartasuneko beste ekipamendu batzuk, hiri-lurzoruan soilik.
c) Trafikoa, ibilgailuak aparkatzea eta mugikortasuna, baina ez hiriko garraio kolektiboa.
d) Udaltzaingoa, babes zibila, suteak prebenitzea eta itzaltzea.

**9.- Son competencias del municipio:**

a) Abastecimiento de agua potable a domicilio y evacuación y tratamiento de aguas residuales, sólo en el suelo urbano.
b) Infraestructura viaria y otros equipamientos de su titularidad, únicamente en el suelo urbano.
c) Tráfico, estacionamiento de vehículos y movilidad, pero no el transporte colectivo urbano.
d) Policía local, protección civil, prevención y extinción de incendios.

**10.- Baieztapen hauetatik zein da zuzena?**

a) Udalerriek ez dute eskumenik euskararen arloan.
b) Udalei eskumen propio gisa aitortzen zaie dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena.
c) Euskararen arloko eskumena Foru Aldundiari dagokio.
d) Aurreko erantzun bat ere ez da zuzena.

**10.- Cual de las siguientes afirmaciones es correcta:**

a) Los municipios no tienen competencias en materia de euskara.
b) Se atribuye a los municipios, como propia, la competencia para el fomento del uso del euskera y la planificación de su normalización en los servicios y actividades que correspondan a su esfera de atribuciones.
c) La competencia en materia de euskara corresponde a la Diputación Foral.
d) Ninguna de ellas es correcta.

**11.- Honako hauek dira pertsonek administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak:**

a) Administrazio publikoekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko laguntza jasotzeko eskubidea.
b) Norberaren autonomia-erkidegoko lurraldean ofizialak diren hizkuntzak erabil ditzakete, lege honetan eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera.
c) Herri-administrazioen eta agintarien erantzukizunak eskatzeko eskubidea, legez hala behar duenean.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**11.- Son derechos de las personas en sus relaciones con las administraciones públicas:**

a) A ser asistidas en el uso de medios electrónicos en sus relaciones con las Administraciones Públicas.
b) A utilizar las lenguas oficiales en el territorio de su Comunidad Autónoma, de acuerdo con lo previsto en esta Ley y en el resto del ordenamiento jurídico.
c) A exigir las responsabilidades de las Administraciones Públicas y autoridades, cuando así corresponda legalmente
d) Todas las respuestas son correctas.

OIARTZUNGO UDALA

**12.- Partikularrek dagokien administrazio publikoen kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango dute:**

a) Beren ondasun eta eskubideetan izandako edozein kalterengatik, baldin eta lesio hori zerbitzu publikoen funtzionamendu normal edo anormalaren ondoriozkoa bada.
b) Ezinbesteko kasuetan izan ezik.
c) Salbu eta partikularrak, legearekin bat etorriz, jasan behar dituen kalte juridikoen kasuan.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**12.- Los y las particulares tendrán derecho a ser indemnizados por las administraciones públicas correspondientes:**

a) De toda lesión que sufran en cualquiera de sus bienes y derechos, siempre que la lesión sea consecuencia del funcionamiento normal o anormal de los servicios públicos
b) Salvo en los casos de fuerza mayor
c) Salvo en caso de daños que el particular tenga el deber jurídico de soportar de acuerdo con la Ley.
d) Todas las respuestas son correctas.

**13.- Herritarrek ondare-erantzukizunagatik erreklamazioak egiteko duten eskubideak noiz preskribatuko du?**
Kalte-ordaina ekarri duen egitate edo egintza izan zenetik edo kaltearen ondorioak agertu direnetik urtebetera..
b) 6 hilabetera.
c) Ez da preskribatzen.
d) Aurreko erantzun bat ere ez da zuzena.

**13.- El derecho a reclamar de la ciudadanía El derecho a reclamar de la ciudadanía por responsabilidad patrimonial prescribe:**

a) Al año de producido el hecho o el acto que motive la indemnización o se manifieste su efecto lesivo.
b) A los 6 meses.
c) No prescribe.
d) Ninguna respuesta es correcta.

**14.- Ondare-erantzukizuneko espedientean erreklamatutako kaltea kalte-ordaina jaso ahal izateko, honako hau izan beharko da:**

a) Benetakoa.
b) Ekonomikoki neurgarria.
c) Indibidualizatua, pertsona bati edo pertsona-talde bati dagokionez.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**14.- Para que el daño reclamado en el expediente de responsabilidad patrimonial sea indemnizable deberá ser:**

a) Efectivo
b) Evaluable económicamente.
c) Individualizado con relación a una persona o grupo de personas.
d) Todas las respuestas son correctas.

**15.- Administrazio publikoek beren funtzionamenduan bitarteko elektronikoen bidez:**

a) Datu pertsonalen babesa bermatuko dute.
b) Ez dute zertan datu pertsonalen babesa bermatu behar.
c) Ez dago babestu beharreko datu pertsonalik.
d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**15.- Las administraciones públicas en su funcionamiento por medios electrónicos:**

a) Garantizarán la protección de los datos de carácter personal.
b) No tienen por qué garantizar la protección de los datos de carácter personal.
c) No existen datos de carácter personal a proteger.
d) Ninguna de las respuestas es correcta.

**16.- Administrazioko arau-hausteak legearen arabera sailkatuko dira:**

a) Larriak eta arinak.
b) Arinak, astunak eta oso astunak.
c) Ez dago zertan sailkatu.
d) Eremu geografiko bakoitzaren arabera.

**16.- Las infracciones administrativas se clasificarán por la Ley:**

a) En graves y leves.
b) En leves, graves y muy graves.
c) No se tienen por qué clasificar.
d) Depende de cada zona geográfica.

**17.- Administrazio-zehapenak:**

a) Askatasun-gabetzea ekar dezakete.
b) Inola ere ezin izango dute, zuzenean edo subsidiarioki, askatasun-gabetzea eragin.
c) Salbuespen gisa baino ezin dute ekarri askatasun-gabetzea.
d) Askatasun-gabetzea ekarriko dute beti.

**17.- Las sanciones administrativas:**

a) Pueden suponer privación de libertad.
b) En ningún caso podrán implicar, directa o subsidiariamente, privación de libertad.
c) Sólo excepcionalmente pueden suponer privación de libertad.
d) Siempre supondrán privación de libertad.

**18.- Arau-hausteen preskripzioa:**

a) Legeek ezartzen dutenaren arabera. Horiek preskripzio-eperik finkatzen ez badute, arau-hauste oso astunak hiru urtera preskribatuko dira, astunak bi urtera eta arinak sei hilabetera.
b) Oso astunak sei hilabetera preskribatuko dira beti, astunak bi hilabetera, eta arinak hilabetera.
c) Guztiek 5 urtera preskribatuko dute.
d) Zehapen oso astunek ez dute preskribatzen.

**18.- Las infracciones prescribirán:**

a) Según lo dispuesto en las leyes que las establezcan. Si éstas no fijan plazos de prescripción, las infracciones muy graves prescribirán a los tres años, las graves a los dos años y las leves a los seis meses.
b) Siempre prescribirán las muy graves a los seis meses, las graves a los dos meses y las leves al mes.
c) Todas prescriben a los 5 años.
d) Las sanciones muy graves no prescriben.

**19.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea aplikatzekoa izan da:**

a) Eusko Jaurlaritzari eta Aldundiari baino ez.
b) Aurrekoei eta toki-administrazioari.
c) Ez zen aplikagarria udaletan.
d) 5.000 biztanletik gorako udalei bakarrik.

**19.- La Ley 4/2005, para la igualdad de mujeres y hombres ha sido aplicable:**

a) Sólo al Gobierno vasco y a la Diputación.
b) A los anteriores y también a la administración local.
c) No era aplicable a los ayuntamientos.
d) Solo era aplicable a los ayuntamientos con un número de habitantes superor a 5000.

**20.- Ondoko printzipioetatik, zein da nahitaez bete beharrekoa?**

a) Debeku da pertsonen sexuan oinarritutako bereizkeria oro, zuzenekoa zein zeharkakoa, edozein dela ere horretarako erabilitako modua.
b) Euskal herri-aginteek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, politika eta ekintza guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezar dezaten.
c) Emakumeen eta gizonen berdintasun erreala eta eraginkorra lortzea sustatzeko, botere publikoek neurri espezifikoak eta aldi baterakoak hartu behar dituzte, bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz dauden egitatezko ezberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**20.- Indica cual de los siguientes principios es de obligado cumplimiento:**

a) Se prohíbe toda discriminación basada en el sexo de las personas, tanto directa como indirecta y cualquiera que sea la forma utilizada para ello.
b) Los poderes públicos vascos han de incorporar la perspectiva de género en todas sus políticas y acciones, de modo que establezcan en todas ellas el objetivo general de eliminar las desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres.
c) Para promover la consecución de la igualdad real y efectiva de mujeres y hombres, los poderes públicos deben adoptar medidas específicas y temporales destinadas a eliminar o reducir las desigualdades de hecho por razón de sexo existentes en los diferentes ámbitos de la vida.
d) Todas las respuestas son correctas.

## ERRESERBA-GALDERAK

## PREGUNTAS DE RESERVA

**21.- Honako hauek dira lurralde-mailako toki-erakundeak:**

a) Udalerriak bakarrik.
b) Udalerriak eta diputazioak bakarrik.
c) Udalerria, probintzia eta mankomunitateak, besteak beste.
d) Toki-erakundeak ez dira lurralde-erakundeak.

**21.- Son entidades locales territoriales:**

a) Sólo los municipios.
b) Sólo los municipios y las diputaciones.
c) El Municipio, la Provincia y las Mancomunidades entre otras.
d) Las entidades locales no son territoriales.

**22.- Udalerriei dagozkie, nolanahi ere:**

a) Erregelamenduak egiteko eta nork bere burua antolatzeko ahala.
b) Tributu- eta finantza-ahala.
c) Jabetza kentzeko ahala eta beren ondasunak beren kabuz ikertu, mugatu eta berreskuratzeko ahala.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**22.- Corresponden en todo caso a los municipios:**

a) La potestad reglamentaria y de autoorganización.
b) La potestad tributaria y financiera.
c) Las potestades expropiatoria y de investigación, deslinde y recuperación de oficio de sus bienes.
d) Todas las respuestas son correctas.

OIARTZUNGO UDALA

**23.- Toki-erakundeek honako printzipio hauen arabera jardungo dute:**

a) Eraginkortasuna, deszentralizazioa, deskontzentrazioa eta koordinazioa, legeari eta zuzenbideari erabat men eginez.
b) Fede onez.
c) Beste administrazio batzuekin ez dute koordinazioa aplikatu behar.
d) Ez dute eraginkortasun prinzipioa aplikatu beharrik.

**23.- Las entidades locales actuarán de acuerdo con los principios de:**

a) Eficacia, descentralización, desconcentración y coordinación, con sometimiento pleno a la Ley y al Derecho.
b) De buena fe.
c) No han de aplicar la coordinación con otras administraciones.
d) No han de aplicar el principio de eficacia.

**24.- Euskararen erabileraren arloan udalei aitortutako eskumenak erabiltzea:**

a) Ordenantzak, erregelamenduak eta jarduera-planak onartuz egin ahal izango da.
b) Udalak ezin ditu eduki hori duten ordenantzak onartu.
c) Eskualde mailako arauak onartu beharko dira.
d) Udal-ordenantzak Eusko Jaurlaritzak onartuko ditu.

**24.- El ejercicio de las competencias reconocidas a los municipios en el ámbito del uso del euskera:**

a) Podrá llevarse a cabo mediante la aprobación de ordenanzas, reglamentos y planes de actuación.
b) El ayuntamiento no puede aprobar ordenanzas con ese contenido.
c) Se deberá aprobar normativa a nivel comarcal.
d) Las ordenanzas municipales las aprobará el Gobierno Vasco.

**25.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legearen arabera, zeharkako bereizkeria egongo da:**

a) Itxuraz neutroa den egintza juridiko, irizpide edo eginera batek proportzio askoz handiagoan sexu bereko pertsonei kalte egiten dionean.
b) Ez dago zeharkako bereizkeriarik.
c) Udalbatzak hala adierazten duenean.
d) Aldundiak udalari jakinarazten dionean.

**25.- Según la ley de igualdad entre mujeres y hombres, existirá discriminación indirecta:**

a) Cuando un acto jurídico, criterio o práctica aparentemente neutra perjudique a una proporción sustancialmente mayor de personas de un mismo sexo.
b) No existe la indiscriminación indirecta.
c) Cuando así lo declare el pleno municipal.
d) Cuando la Diputación lo ponga en conocimiento del ayuntamiento.